


Nafarrokaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1995eko urriaren 13a / VI. urtea / 200. zenbakia

Txuspo Poyo, sailkagaitza

Azken urteotan arte munduan maiz azaldu diren artista gazteetako bat dugu Txuspo Poyo altsasuarra. Hainbat sari irabazita, duela lau urte Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza jaso eta Torontora (Kanada) abiatu zen, ikastera. Hortik New Yorkera egin zuen jauzia, eta gustukoa izan du hiria, hor jarraitzen baitu. Etortzen denean Urbanan ematen ditu udak, familiak duen tabernan. Sailkatzen gaitza den bere arteak me-rezimenduzko hitzak jaso ditu non-nahi, eta azkenotan bideoa eta zinemarekin txoratu samarturik dabil. «Zinema da XX. mendeko asmakizun mitologikoa, arketipo guztiak zinematik etortzen zaizkigulako».



Txuspo Poyo, ekainean Iruñean zabalduko erakusketan.

JOXE LACALLE

Mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



Bidaiaria irribarretsu dago. Ilunabar aldera, musikaz eta bestez mozkortzen den auzuneari bizkar eman dio, tranbia hartu eta *mansion* kolonialek mugatzen duten etorbidean barrera egin du, magnolioen urrina beti lagun. Zabal-zabalik daude tranbiaren egurrezko leihatila guztiak; tarteka rododendroen hosto eta loreek iristen dituzte bidaiariaren aurpegiak. Barnean gidariaren ahots lodia gailentzen da, irri ajataka dira alboan dituen hiru emakumeak. Euri tantak somatu ditu bidaiariak besoan, masailean eta ezpainetan. Uraren gozoa milikatu du. Hurrengo geldialdian neska jaitsi berriaren ibilkera geldoari erreparatu dio.

Ia bi milia haratago irribarretsu darrai bidaiariak. Ba-

samortuaren atarian ehunen bat trailer daude geldirik. Txofer akituek, garbitzeko eta telefonoz deitzeko probetxatzen dute. Aurreraxeago, zero gorriaren isla ibai gorriaren gainean. Merkantzia tren beltza zubi gaineratik iragaitean ilundu da suzko ispiluaren azala.

Orduan bidaiariaren go-goak ozeanoa zeharkatzen du. Begi beltzeko neskarekin akordatzen da («ez zaiteala galdu» esan dio murrirak partitu baino lehen), eta ez ditu ahantzi aspaldiko lagun haren galdera isilak.

Une horietan postalak iza-

ten omen zubi. Bidaiariak, ordea, ongi gordea dauka behin baino gehiagotan aurpegiratu diotena: «Motel, ez zagok hiru postalak ulertuko dituen kristaurik». Eta bidaiariak badaki ez direla letraz ari.

Urrun dago, «urrunegi» esanen luke edozein rock kantaren leloak. Bidaiariak badaki alfer-alferrik hasiko dela lerroak konposatzen, hitzak kateatzen, epiteto egokiak bilatzen. Atzerriaren lilurak sorterriaren soslaia gandutzen du, airez betetzen ditu bidaiariaren birrikak, mozkorraldiak ausardia iragankorra ematen dio, mila ar-

gi ttipi pizten ditu bidaiariaren baitan eta nahasi egiten dio mintzoa.

Azkenik bidaiariak konprenitu egin du. «Kontaguk...», eskatuko diote itzuli eta gero; eta bidaiariak itxura egingen du, bost bat minutuz ariko da, gertaera bitxi bat edo beste kondatzeko behar den denbora, solaskidea satisfatzeko adina, ez gehiago. Pelikulak. Ohartu da bidaiaria, askok pelikulak entzun nahi izaten dituztela, kotxe iragarriak, susedidoak... Eta ez dago ezer.

Argiak, hori bai, argi ttipi horiek ez dira sekula iraungiten, barneko paisaia erakusten dute. «Hobe mutu», dio bidaiariak bere golkorako. Aski ongi baitaki abentura zailenak etxera itzulitakoan hasten direla.

Urrunegi joana

GURE AUKERAK

ERAKUSKETAK

Korellako Kultur Etxean 'Ayuda a Bosnia' elkárteak antolatutako mar-go erakusketa zabalik dago urriaren 21a bitartean. Hainbat artistaren 31 lan daude ikusgai 5etatik 9etara astelehenean larunbatera.

Iruñeko Eroski hipermerkatuan 'Prezesu' izenburupean Belen Arevaloren grabatu erakusketa dago zabalik urriaren 31 arte.

Tafallan Angel Guallarren margoak daude ikusgai Kultur Patronatuaren egoitzan. Margolariaren 23 lanak igandera arte ikus daitezke.

Mediku Elkarteak Iruñean duen egoitzan Javier Bauluzen argazkiak daude ikusgai. 'Ruanda: Amor en tiempos de cólera' erakusketa urriaren bukaera bitartean dago zabalik.

IKASTAROA

Iruñeko Prentsa Elkarteak kazetari-entzako ingelesa ikastaroa antolatu du. Ikastaroa urriaren 23an, astelehena, hasiko da. Izena emateko Ansoleaga kaleko 12. zenbakian duen egoitzara hurbildu behar da edo 22 40 79 telefonora deitu.

KANTALDIA

Lezaungo elizan Aizako ganbara abesbatzak abestuko du igande honetan. Kantaldia eguerdiko 12.45ean izanen da.

ZINEMA

Tafallako Español zinemaren 'Criaturas celestiales' pelikula eskainiko da datorren ostegunean, urriak 19. Emanaldia gaueko 10.30etan izango da.

KONTZERTUAK

Garesen Raimundo Amador abeslariaren kontzertua dago bihar. Emanaldia gaueko 11.30etan izanen da.

Tuteran Nafarroa Oinez-eko egitarauen barruan hainbat kontzertu eskaintzen dira. Bigarren gunean, 13.30etan Erramun Martikorenaren kantaldia dago, 15.00etan Balerdi Balerdiaren kontzertua, 16.00etan Bittor Aiaperena eta Sorotan Belerena eta 17.00etan Sorotan Belerena. Laugarren gunean, berriz, 15.00etan Nahita Nahiez, 16.00etan Niko Etxart eta 17.00etan Maixa eta Itziar egonen dira. Bosgarren gunean, aldiz, 15.00etan Los Dinosaurios, 16.00etan Anje Duhalde eta 18.00etan Tapia eta Leturia Band ariko dira.

Tafallan Esteban Elizondoren organo kontzertua dago gaur. Emanaldia arratsaldeko 8.30etan da Santa Maria elizan.

ANTZERKIA

Ziordian Udazkeneko Bira 95 egitarauen barruan Iruña Antzerki 'Titiak' 'Bazter utzitako panpinaren istorioa' eskainiko du bihar. Emanaldia herriko frontoian izanen da arratsaldeko 20.30etan.

Badostaingo plazan Udazkeneko Bira 95eko ekitaldien barruan ere Scaramouche taldeak 'Cineman' lana eskainiko du igandean. Antzezlanaren arratsaldeko zazpitan izanen da.

NAFAR KRONIKA

PATXI LARRION

Edonoiz

Agerraldia dator. Fun-tsean hori baita urtero egiten dena. Aurtengoan martxa eta guzti. Tuteran heldu den igandean hamar ordu igarotzeko duen esanahia baino, Nafarroa

ga-mugan» (zeren mugan?) gortorlekua eraikitzea. Mugak gortortzea baino norbere baitan di-tuenak askatzea nahiago. Tuterako kasuan, Euskal Herrian izan diren esperientzia guztien antze-

tako bat. Erriberako lagunak us-tez euskal estiloa denari kolore eta molde berriak gaineratu diz-kiete, denon onerako izan daite-zen.

Agerraldia dator, horrek di-



Oinez-en inguruan ematen ohi diren gertakizunei erreparatzea egokiago deritzot. Fontellasen eraikitzen ari denak duen balore sinbolikoa azpimarratzea erraz-gia da, bertakoek ere heroiak izateko asmorik ez dutela maiz azaldu dutelako. Kontua ez baita, aunitzek uste duten gisan, «mu-

ra, giza talde baten nahia izan da hori aurrera eramaten ari dena. Inoiz esan izan da ikastolaren mugimenduan xahutu direla herri honen indarrak preziatuenak. Gehiegikeria ote?

Behar ekonomikoak bultzatu-rik egiten ohi den aurrekanpaina dugu festaren beste ezaugarrie-

tuen alde on eta txar guztiekin. Azken hauek maiz aipatuak izan dira, baina festa biltokia dela ezin uka. Nafarroako Erriberan egunero euskaraz aritu nahi du-tenentzat baliagarria suertatzen bada aski eta sobera. Igande honetan inoiz baino gehiago, baina, halere, hobe edonoiz.

ASTEKO PERTSONAIK



Pedro Txillida
Margolaria

Pedro Txillida margolariaren erakusketa zabaldu du Iruñeko Kribia Paretoak. Eduardo Txillidaren semeak papera eta giza gorputza hartu ditu ardatz azaroaren 7ra bitartean ikusgai izanen den erakusketa honetan. Margolariak aurtun egindako azken lanak ekarri ditu Iruñera —20 koadro osotara—, nahiz eta horien artean iazko lanen bat edo beste ere aurki daitezkeen. Pedro Txillidak paperak dituen nabardu-rengatik aukeratu duela azaldu zuen erakusketaren aurkezpenean eta, halaber, bere obra etengabe «garbitzen» ari dela azpimarratu zuen, «osagarria kenduz eta mamia ertsiz». Margolaria bere aitaren eragin handiaz ere mintzatu zen eta erran zuenez, «bera izan da nire kritikorik zorrotzena, baita nire lehen maisua ere».



Gabriel Urralburu
Nafarroako lehendakari ohia

Ei Mundo egunkariak aste honetan argitaratu duenez, 1983tik 1986ra bitartean GALEko talde bat aritu zen Nafarroan eta garai hartan Nafarroako lehendakaria eta PSNko idazkaria zen Gabriel Urralburuk bazuen horren berri. Urralburuk, ordea, zeharo faltsutzat jo du berri hau eta Nafarroan ETaren kontrako borrokan legez kan-poko ekintzen berririk ez zuela izan berretsi du. Urralburuk, bestalde, berria egunkarian irakurri zuenean «guztiz harriturik gelditu» zela adierazi du eta salatu egin du berria idatzi aurretik egilea berarekin mintzatu ez eta informazio horrekin batera berak ukatu egin duela ez argitaratu izana. Gabriel Urralburuk iazko ekainean utzi zuen PSNko idazkaritza nagusia eta irailean Parlamentuko aulkia.

AHAZTU GABE!

URTEURRENA



Arantzadua 94, Ameskoako Ikasketa Tailerra elkarte kulturalak antolatuta eta bere lehenengo urteurrena ospatzeko egun berezia prestatu du biharko Zudairen. Elkarte hau 1994ko irailaren 24an sortu zen Ameskoako kultur ondasuna ikertzeko eta gordetzeko asmoarekin. Geroztik, Ameskoako Eguna eta Ameskoako Aste Kulturala indarberritu ditu. Era berean, 'Nafarroako Toponimia eta Mapagintza-ren' XXII. tomoa kaleratu dute Ameskoako leku izenekin. Baina lana ezezik ospakizun garaia ere badela uste dute elkarte kideek eta hau dela-eta egun berezia antolatu dute biharko. Arratsaldeko ordu bietan Zudaireko Hirigoien jabetxean bazkaltzeko bilduko dira elkarte kideak eta lagunak. Geroxeago, arratsaldeko bostak inguruan hitzaldia izanen dute. 'Eguraldia aldatzen ari da?' izenburupean Jose Ignacio Alvarez Usabiagak gizakiaren eginkizunak azken urte haue-tan batez ere kliman izan duen eragina izanen du aztergai. Jose Ignacio Alvarez Donostiako Meteorologia Observatorioko zuzendaria da egun.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenean ostira-lera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00eta-ra... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkar-riketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osa-suna, sukaldaritza, ohiturak...



Zizur Nagusia

Kartzelako gaia

Juan Kruz Lakasta

Ezin ezinez ezina

University of Santo Tomas abesbatza

IRUNEA

Nafarroako Abesbatzen Elkartek antolatuta, nazioarteko hamaika abesbatza Nafarroan izanen da hil osoan zehar Iruñean egingo den zikloan parte hartzeko asmoz. Iruñeko zikloaz gainera, Erriberri, Zizur eta Tafallan ere abestuko dute aipatu taldeek.

Lehen kontzertua Filipinetako University of Santo Tomas abesbatzak eskainiko du hil honen 27an, gaueko hamarretatik aurrera, Zizurko Kultur Etxean. 1972. urtean sortutako abesbatza dugu hau, eta, besteak beste, Richard Pappert izan du zuzendari. Biharamunean, bost kontzertuk osatzen duten Iruñeko zikloa hasiko da. Aipatu zikloari Alemaniako Renner Ensemble Regensburg abesbatzak emanen dio hasiera. Aipatu kontzertua, Iruñeko zikloan egingo diren gaintzeko guztiak bezala, Gotorlekuko Armen Aretoan izanen da, arratsaldeko zortzietatik aurrera.

Ziklo bereko bigarren kontzertuan Bulgariako Children Choir of Bourgas abesbatza entzuteko aukera izanen da. 1947. urtean sortua da abesbatza hori, eta egun 200 haur inguruk ikasten dute bertan. Abesbatza honen ondoren, hilaren 30ean, Det



Nazioarteko hamaika abesbatza egonen dira Nafarroan.

Jyske Kammarkor Danimarkako abesbatzak eskainiko du kontzertua. Urriaren 31n, berriz, Hondarribiko Eskifaia abesbatza izanen da, eta azkenik, azaroaren 1ean, Suitzako Varbergs Kammarkor abesbatzak itxiko du zikloa.

Nafarroako Abesbatzen Elkartek prestatutako eskaintza zabala, hala ere, ez da horrekin bukatuko, Tafallan ere, lau egu-

neko zikloa antolatu baitute elkarteko arduradunek. Lehen kontzertua urriaren 29an izanen da, eta Alemaniako Madchenchor Hannover abesbatza izanen da lehen gonbidatua. Horren ondoren, biharamunean, Oxford Pro Musica Singers abesbatzak abestuko du. Urriaren 31n, berriz, Tygeberg Childrens Choir abesbatza izanen da Tafallan, eta azaroaren 2an, azkenik, Ban-

chieri Singers. Tafallako kontzertu horiek guztiak San Pedroko elizan izanen dira, arratsaldeko zortzietatik aurrera.

Iruñeko edo Tafallako zikloetatik kanpo, Zizurren bezala, Erriberri ere kontzertua izanen da eta Hungariako Pro Musica Hungarica abesbatzak eskainiko du, hain zuzen ere, Santa Mariako elizan, arratsaldeko zortzietatik aurrera.

Ezin ditut bost ordu igaro ateko txibatoaren bestaldetik begiratzeko nuen funtzionari zenbaitailearen begiradaren xedea izan gabe, ezin dut atepean geratzen den tarte egunkariz estaltzeko utzi, bestela saguixo bat bisitan etortzen delako, ezin dut egunkaria edo beste edozein gauza irakurtzeko flexorik erabili, ezin dut sabaitik eskegita dagoen bonbila nahi dudanean piztu edo itzali, ezin dut goizeko ordu bietatik aurrera argindarrik erabili, ezin ditut goizeko ordu bietatik aurrera paretari zuri hutsak ikusi, ezin dut paretetan koadro edo posterrik eskegi, ezin dut lau pauso baino gehiago eman paretarik luzeenak lau metro dituelako, ezin dut 75 zentimetroko zabalera duen mahaian kasik deus egin, ezin dut mahaian deus moztu, ezin dut eta guraizirik eduki; ezin dut metalezko labana, sardeska edo koi-lararik izan, ezin dut kristalezko plater batean jan, ezin ditut plastikozko platerak, eskuak edo neure burua ur berotz garbitu,



Iruñea

EGUNKARIA berrituaren lehen alea dela-eta herri afaria egingo da datorren ostiralean

E. E. / IRUNEA

Euskal Herri osoko 40 herritan baino gehiagotan afaria egingo da datorren ostiralean, hilaren 20an, EGUNKARIA berrituaren lehen alea datorren larunbatean karrikaratuko dela ospatzeko asmoz. Izan ere, hil honen 21etik aurrera, aldaketa nabarmenak izanen ditu EGUNKARIAK, bai itxuran bai mamian. Bost urtetan EGUNKARIAK izan duen aldaketarik handiena egingen du astebeite barru: orri gehiago, eduki berriak, diseinua, maketazioa, kolorea lehen eta azken orrialdean eta abar. Hau guztia lortu ahal izateko lan eta lan aritu da azken urte erdian talde berezi bat.

Iruñean Arrano elkartearen eginen da afaria. 1.500 pezetaren truke, afari aparta izanen dute ehun lagun inguruk. Izena eman nahi duenak 17 66 86 telefonora

dei egin behar du eta Iñakirekin hitz egin. Gaueko hamarrak aldera hasiko da afaria eta bertolari eta trikitilariak alaituko dute giroa. EGUNKARIA berritua jaso

baino lehen, egunkari honi buruzko iragarki eta bideoa ikusiko dituzte pantaila erraldoian Arrano elkartearen bildutako guztiak. Ondoren, ordu bata inguruan,

EGUNKARIA berrituaren lehen alea ikusi eta irakurtzeko aukera izanen dute, bertan bildutako artean banatuko baita. Iruñean ezekiz, Nafarroan, Lesakan —Kattu tabernan— eta Etxarri-Aranatzen ere egingo dute afaria eta Iruñean bezala, jai giroa izanen da nagusi.

Erran bezala, Euskal Herri osoan egingen dira afariak. Iparraldean, Baiona izanen da euskaltzale guztien topaleku eta EGUNKARIAren aldeko afaria Txoko elkartearen egingo dute. Euskal Herri osoko afariak prestatu bitartean, halaber, izan da ezusterik ere. Gipuzkoako Orexa herrian, adibidez, herriko jaiak ospatuko dituzte datorren asteburuan eta hori dela eta, zikiro jatea prestatu zuten antolatzaileek. EGUNKARIAren asmoa jakinda, herri afaria EGUNKARIAren afaria izatea erabaki dute.

ezin dut neure burua ur hotzez garbitu eta gero usain oneko alkoholdun kolonia edo desodoranterik erabili, ezin dut kaka egin ziegakideari horren usain txarreko ondorioak sufriarazi gabe, ezin dut kanpaia jo ziegakideaz gain literakidea den laguna kulunkatu gabe, ezin dut zurrunga egin laguna esnatu gabe, ezin dut literako ohe estu eta ezerosan gustura —batzuetan beste inola ere ez— lo egin, ezin dut ohean hotza saihestu hamaika burubideren laguntzaz, ezin dut funtzionariak goizeko zortzietan pizten duten argia itzali, ezin dut zortzi t'erdia baino beranduago altxatu, ezin dut ohea egin gabe utzi, ezin dut ziegan gauza piloa egin eta ezin dut ziegan egunero 16 ordu baino gutxiago egin.



EGUNKARIA berritua 21ean kaleratuko da.



Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) erakustaretoan ekainean paratu zituen lanetan ikusi ahal izan zen Txuspo Poyo artista nafarraren azken produkzioa. New Yorken bizi den altsasuar hau artista gazteen artean interesgarrietakoa da, dudarik gabe, eta etortzen den aldi oro ikusmina sortzen dute bere erakusketek. Estatu Batuetarako hegazkinean hanka bat zuela harrapatu genuen, eta hiriaz, arteaz eta bizitzaz mintzatu ginen.



Toronton izan zuen esperientziaren ondotik, New Yorken da egun Txuspo Poyo.

ANA BARANDIARAN

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Altsasu eta New York dira Txuspo Poyoren etxeak. Hobeki esanda, Urbasa eta New York. Familiak basoan duen tabernan ematen ditu udak, Brooklynen bihotzean gainontzekoa. Hamabost urte dagoeneko hemen. Lau han. Nafarroako Jaialdiak eta artista gazteentzako Iruñeko Udalak ematen dituzten sariak eskuraturik, Nafarroako Gobernua-ren dirulaguntza lortu zuen Torontora (Kanada) joateko, eta hortik New Yorkera aldatu zen urtebeteren buruan. Dioenez; kanpora ateratzeko erabakia «desilusioaren ondorioa» da.

EGUNKARIA.— Horren ondorioa bakarrik, edo baita kanpoan gertatzen dena ikusteko gogoia ere?

TXUSPO POYO.— Kanpora ateratzen dena prakerre izan ohi da,

baina desilusioa toki guztietan dago, hemen eta han: ihes egitean aurkitzen dituzun tokiak hau bezain etsigarriak dira. Kanpora jotzen duzunean, harrigarri den zerbaiten bila zoaz beti, eta edozein toki ona da mugitzeko, mugitzen diren izakiak garelako. Eta ez da aparteko beste arrazoia bilatu behar. Ikusi beharra dago beste tokietako jendeak nola hitz egiten duen, nola egiten duen ba-

rrer, nola jotzen duen larrua. Erreferentzia puntu bat baldin baduzu —hau, jaio zaren tokia—, beste bat behar duzu beti, izan dituzun esperientzia guztiak beste kultura batean islatu ahal izateko.

Hasieran ingelesik jakin gabe joan zen Torontora, eta lehen sei hilabeteak sadomasokismoaren parekoak izan zirela dio. Baina prest zegoen, antza, indartsu, eta

onik atera zen handik, are indartsuago, «behar nituen-eta zatarda haiek».

EGUNKARIA.— Azkenean aurkitzen da bilatzen dena?

POYO.— Nik ez dakit zeren bila nabilen. Badakit zer ez dudana nahi. Jakingo banu zer nahi dudana, bizi garen mikrokosmos honetan aurki nezakeela iruditzen zait. Esango nuke ideia unibertsal bat bilatzen dudala hondarrean,

ikertu nahi dudala zergatik gertatzen ari den kulturen arteko informazio truke hori, zer ondorio sortzen ari den... Hor dago, eta ezagutu behar dugu barneko funtzionamendua, alde iluna, bertan egonik besterik ezin egin daitekeena.

EGUNKARIA.— Zerk harritu zaitu gehien New Yorketik, zer ez zenuen espero?

POYO.— Nik ez nuen ezer espero, baina hirira heldu eta iruditu zitzaidan dena ezagutzen nuela, nonbait ikusia nuela. Hasieran beldurtuta joan nintzen, hiria den bezalakoa izateagatik, baina gero, karriketarik oinez nindoala, esaten nuen 'hau ezaguna daukat'... Jakina, zinematik eta telebistatik jaso dugun informazio guztiarengatik da: erraldoia izanda ere, dena ezaguna egiten zaizu. Gainera, lehen astean izan

«Ez dakit zeren bila nabilen»



Estatu Batuetako esperientzia batez ere «humanoa» izan dela dio.

ANA BARANDIARAN



zaitezke turista, eta bigarrena, lasai asko, bertako, trantsiziorik gabe. Inor ez da hangoa, baina denek dugu erreferenziaren edo ezagutzaren bat. Beraz, ez dago esaterik zenbat denbora emango duzun hor, hiriak berak harrapatu egiten zaitulako, bere armiar-maren sarean nahasten zaituelako. Asko ematen dizu eta, era berean, asko kendu, hiria bera elikatu egiten delako han dagoen jendearekin.

EGUNKARIA.— Energia asko xahutzen da, beraz, han.

POYO.— Energia itzela. Izugarritzko tentsioa da, informazioa toki guztietatik heltzen zaizulako.

EGUNKARIA.— Bonbardaketa hori dela-eta, gauzak aukeratu egin beharko dira. Nola jokatu duzu han? Hartu egiten duzu alderdi bat eta hori landu, edo denetarik hartzen saiatzen zara?

POYO.— Hiri honek, hiri guztiek bezala, badu alderdi bat ia lo egiteko bakarrik balio duena, eta beste bat punta-puntakoa. Adibi-

tik nabarmentzea baino franko errazagoa, nolana ere.

EGUNKARIA.— Zaila izango da zure produktua saltzea nabarmendu nahi duen hainbeste jendearen artean.

POYO.— Zaila da, bai, baina ni ez naiz joan hara nire gauzak saltzera. Inozokeria izango litzateke, eta gerta dakizuke lehen astean berean etxera itzultzea. Gauza guztiek badute denbora eta toki bat gerta daitezten. Une honetan hangoa esperientzia pertsonala dela uste dut. Batzuentzat hiri hau zoragarria da, eta beste batzuek ezin dute ezta jasan ere egin, lehen astean bueltan daude, hor gizatasunik ez dagoelakoan. Niretzat hiriak, hasieran, hotz utzi ninduen, baina gero konturatu naiz abegi eman ahal dizun hiria dela.

EGUNKARIA.— Esperientzia artistikoa ere izan duzu han?

POYO.— Esperientzia humanoa izan da batez ere. Hori bai, dena elkarrekin dagoela uste baldin badugu —asko hitz egin gene-

zait gauza bera. Ez naiz oso nostalgikoa, baina tarteka baditut sentimendu horiek, eta ez zait batere gustatzen, indarra galtzen duzulako, ahulago egiten zaituztelako. Nahiago dut aurrera begira egon. Badakit atzekoa hor dagoela, baina ez dut errebisiorik egiten, ikusteko zer gauza izan zaizkidan baliagarriak eta zeintzuk ez. Baditut nire akatsak, eta izango ditut aurrerantzean ere, eta saiatzen naiz hortik ikasten, baina beti badut aurrera jotzeko joera handiagoa. Narratiba zinematografikoa da, 'jarraituko du' ari naizelako egiten. Azken finean, beti lan egiten dut lau ideiarekin, aldatu besterik egiten ez direnak.

Esperimentala direla diote katalogoek, baina berak horrelako etiketarik inoiz ez duela jarri azpimarratu du. «Ezin izan dinate inoiz horrelako etiketarik jarri —minimalista, kontzeptuala, espresionista ote naizen—, eta esaten dute esperimentala naizela, hor ez dutelako huts egi-

POYO.— Ez dut inoiz horretaz pentsatzen, beti lanean nagoelako. Lan honi eskatzen diot ideiak sor ditzala etengabe, ezin dudalako nire sormen lana sartu atarabiderik ez duen karrika batean. Orain lan egiten ari naiz bilbatuta dauden argazkiekin, baina aldatu dut lehen erabiltzen nuen sistema. Lehen zatiketa guztiek osatzen zuten irudi bat, baina orain irudia da zatikatua dagoena, hau da, justu kontrakoa. Eta oso gauza bitxia atera zait, irudi zatikatu horren bidez irudi konputerizatu lortu dudalako. Hori zen lan honekin guztiarekin bilatzen nuena, teknologiaren eta antropologiaren arteko elkargune bat; hau da, bizi izandako irudiekin, pantaila bat lortzea, non puntu bakoitzak informazioa emango duen. Sare bat da, eta puntu bakoitzean bada zerbait, harremana edo...


Pinturaz gain, bideoaz eta zinemaz hitz egin du, azkenotan duen zeregin artistikoa ere badi-relako. Lan egin zuen Daniel

zuen, eta horregatik atera ziren marrazki bizidunetan beti biolentziaren inguruko pertsonaiak». Duela gutxi, kamera berearekin, laburmetraia egin du espaziora doan astronautaren eta landare baten arteko bakarrizketaz. Hirugarren objektua fotokopiagailu bat da. New Yorkera joan baino lehen ahalegindu zen ekoizle bat bilatzen.

EGUNKARIA.— Sekuentzia, gertaera... zinemarekin zerikusirik duten espresioak...

POYO.— Asko erakartzen nau zinemak mitoak sortzeko duen gaitasunarengatik. Lehen zinemak bizitzatik edaten zuen, eta orain ia bizitzatik edaten du zinematik. XX. mendeko asmakizun mitologikoa da, arketipo guztiak zinematik etortzen zaizkigulako.

Egun New Yorken da berriro, eta ez du eperik jarri bere erbestearek amaiara emateko. Ez behintzat handik zerbait jaso deza-keela jakin arte, baina Mexiko eta Berlin asko erakartzen duten beste hiriak direla dio.



Lantxo batzuekin ateratzen duen diruarekin jarraitzen du lanean. «Nire lana sal nezakeela pentsatzea inozokeria litzateke.

ANA BARANDIARAN

Ez dut inoiz errebisiorik egiten, ikusteko zer gauzak izan zaizkidan baliagarriak eta zeintzuk ez. Aurrera jotzeko joera handia daukat».

dez, Each Villagek antza handia du Berlinekin, jende mugimendu handia duelako. Gainera, badu kutsu europarra, nabarmen, jantziengatik eta jendearen izateko moduarengatik.

EGUNKARIA.— Askotan esan da New York dela Estatu Batuetako hiri europarrena.

POYO.— Eta halaxe da. Dena manciatzen duen jendea, neurri batean, oso europarra da.

Lehen urteko bekaren ondorioz, itzuli edo han dirulaguntzarik gabe gelditzeko erabakia hartu behar izan zuen pintoreak, eta bigarrena erabaki. Orain, lantxo batzuetan ateratzen duenarekin egiten du aurrera, ez baita, aipatu duenez, sobera zaila lana aurkitzea hiri hartan. Arte lanarenga-

zake horretaz—, oso aberasgarria da, jendearekin duzun komunikazioa oso handia delako. Han inor ez da ezer, eta denak badira zerbait; beraz, denek ezagutu behar dituzte denak. Norbait ezagutu orduko, jatorria zein den, zer ari zaren egiten kontatu behar duzu...

EGUNKARIA.— Ez dakit asko begiratzen ote duzun atzera, baina kanpoan daramatzazun urte horietan zertan aldatu da zure lana? Zer bilakaera izan du?

POYO.— Konturatu naiz gertatzen zaizkizun gauza guztiak gero aprobetxatu egiten dituzula zure lanerako, zure bizitzarako. Eta urte batzuk igarota aurkitzen duzun laguna bezala, askotan ideiekin eta gauzeekin gertatzen

ten». Jakina, ez du asko balio altsasuar honen lan berezia sailkatzeko.

EGUNKARIA.— Nola definituko zenuke zure lana gaur egun?

POYO.— Bada, abstrakzioaren eta figurazioaren artean dago. Hiru kontzepturekin ari naiz lanean: sekuentzia, ugaritasuna eta zatiketa. Bilbeak egiten ditut, sare moduan, eta horrela lortzen ditut perspektiba abismala duten irudiak, bata bestearen gainetik jartzen diren ideiak. Horrela sortzen da pieza horrekin zerikusirik duen narrazio bat. Pieza edozein delarik, narrazioa desberdina da, bilbea ere bai —bai ehunarena, bai ideiena— desberdina delako. Argazkien, fotogramen eta beste materialen bidez lortzen ditut batzuetan abstraktuak diren ideia horiek. Finean, nire esperientziarekin zerikusirik duten historiak osatzen ditut.

EGUNKARIA.— Garai gorenean dagoen lana da?

Tarteka beti joan behar izaten dut itsasoa ikustera, edozer gertatzen delarik ere, olatuak beti hor egongo direla jakiteak lasaitu egiten nau eta».

Kalparsoro donostiarrarekin 'W.C.' laburmetraian, zuzendari artistiko gisa, eta 1993tik aurrera hasi zen bideoarekin gauzak egiten. «Bikoiztu egin beharra daukat nire lana», dio: alde batetik, bere lan artistiko propioa, eta bestetik beste jendearekin egin behar duena. Haurrentzat propio eginiko bideo kamera batekin zenbait elkarriketa egiten hasi zen New Yorken, galdetuz marrazki bizidunek pertsona horriengan izan zuten eraginaz. Hortik asko ikasi zuen itxuraz txepelak diren marrazki hauetaz. «Japoniar batek, adibidez, esan zidan Tokio ez zela hiri japoniarra, tradizionik ez zuelako. Horregatik, 60 urtean behin hondamendiren batek suntsitu egiten

EGUNKARIA.— Zer gogo, zer animu ekartzen duzu hona, herrira, Urbasara etortzen zarenean?

POYO.— Ni Altsasu eta Urbasa bitartean hazi naiz, eta Urbasan azken 15 urteotako uda guztiak eman ditut. Hor dago, ez dit aparteko ezer berezirik sortzen, pentsatzen dudalako atxikita nagoela horri. Oso animalia naiz mendian, erabat aldatzen naiz. Eta New Yorken nagoenean ez naiz ezertarako gogoratzen Urbasaz. Hori bai, tarteka beti joan behar izaten dut itsasoa ikustera, hodeietza eta olatuak ikustera, ikuste soilarekin ahaztu egiten ditudalako arazoak. Jakiteak edozer gertatzen delarik ere olatuak beti hor egongo direla, joan-etorrian, lasaitu egiten nau.

Kritikontzi

HIESa edo SIDA

XANTI BEGIRISTAIN

Gaur egun euskal komunikabideetan, hau da, euskara hutsez aritzen diren horietan, oso ohiko kontua da antzeko esamolde ugari entzutea. Gehiegi pentsatu gabe honako hauexek bururatzen zaizkit aida batean: OHO edo EGB, UBI edo COU, EAJ edo PNV, NUP edo UPNA, EHU edo UPV, BEZ edo IVA, PFEZ edo IRPF, BBB edo BUP eta abar (seguru asko, honen erraz gogoratze honek esan nahiko du sarri askotan entzuten direla).

Baina 'edo' hau horren maiz erabiltzeak ez luke zentzu txarrik izango hizkuntza azaldu edo normalizatuko balu. Oso bestela gertatzen da, ordea, eta jarraian jarri behar duan adibidea hagituz arrunta da zoritxarrez, nire uste apalean: «Gaur HIESa edo SIDAri buruz hitz egin behar dugu gure saioan. Dirudienez, SIDAren arazoa gero eta larriagoa da. Beraz, nire galdera honakoa da: Hartzen al da seriotan SIDAren afera gure herri honetan? —Nire ustez SIDAren kontua oso korapilatsua da eta horregatik...».

Ikusten duzuenez, honelako kasuetan HIES hitzari tratamendu folklorikoa baino ez zaio ematen. Hasieran aipatzen da behin edo birritan, eta kitto! Beranduago ere esata-riak edo aurkezleak agian noiz edo noiz esango du delako hitza, ez guztiz konbentziturik, baina esan, esango du. Mota honetako hitzak, era honetan erabiltza, gehiago ematen du horrelakoak badakizkigula azpimarratzeko ahoskatzen direla, normaltasuna lortzeko baino. Esan bezala, goragoko kasuan HIES hitza kazetariak eta apika beste norbaitek hiruzpalau aldiz erabili dute, eta akabo! Gainerako solaskide guztiek, dagoeneko, SIDA hitza, beharbada, hogeiren bat aldiz esan dute. Hortaz, lau aldiz euskara batuaz eta hogeiz gaztelania batuaz. Hori, jaun-andreok, nire ustez ez da



euskara jaso eta jantzia normalteza; erdara, aldiz, agian bai.

Kazetari, esatari, aurkezle profesionalak eta abarrek zeregin hauetan paper garrantzitsu eta funtsezkoa dutela uste dut. Berengan dago erantzunkizuna, neurri handi batean behinik behin. Eta jarriko dut adibideren bat. Aurreko kasuan ez bezala, aurkezleak honako antzeko zerbaite esango balu:

«Gaur HIESari buruz hitz egin behar dugu gure saioan. Norbaitek oraindik ez baleki ere, HIES siglak Hartutako Imuno-Eskasiaren Sindromea esan nahi du. Eta hau argitu ondoren, esaidazu nola ikusten duzuen HIESaren arazoa Euskal Herrian...».

Esan dudana bezala, profesional guztiek edo gehienek horrela jokatuko balute beti, seguru asko, euskararen normalizazioa, alderdi horretan behintzat, askoz ere eraginkorragoa izango litzateke.

Beste alde batetik, ikus dezagun nola jokatzen duten gurea baino askoz ere normalizatuago dauden hizkuntzek. Har dezagun gaztelera, esate baterako, eta ikusiko dugu zer egiten duen hitz edota sigla berriren bat sortzen denean (ez dezagun ahaztu horrelakoak ia-ia eguneroko ogia direla): «El nuevo partido político formado por J.C. Alli, CDN, que significa Convergencia de Demócratas Navarros... Pues bien, como decíamos CDN...».

Edo: «El nuevo modelo de enseñanza, ESO, es decir, Educación Secundaria Obligatoria...».

Ikusten dugunez, egiten dutena oso erraza eta xumea da, hots, beren hizkuntzaz azalpen motz eta egokiren bat ematen dute, eta besterik ez! Hor ez dute ingelesa, frantsesa edo beste inongo hizkuntzaren sinonimorik bilatzen.

Ni konbentzita nagi hori dela biderik zuzen eta egokiena. EGUNKARIAK, beste salbuespen bitxi batzuekin batera, gainezka demostratu duela uste dut. Gaztelania erabiltzen dutenek ez dute, esaterako, honelakorik egiten: «Un juez o epaile ha dicho...»; «la corrupción o ustelquería es en este país...»; «la dispersión o sacabanaqueta ya no es sostenible...».

Ez, euskaldunok ere pertsona normalak gara adimen aldetik eta normaltasunez tratatu beharko gintuzkete komunikabideek; konplexurik gabe. Ez gara bigarren mailako hiritarrak. Erderekiko (gaztelera-frantsesa) dugun morrontza alde batean edo bestean uzteko garaia da. Gainera, euskarak ere askotan baditu sinonimoak (sakabanaketa edo barreiaketa, adibidez). Gogoratu behar dugu Ipar Euskal Herria ere hortxe dagoela.

Nire uste apalean, zenbat eta gehiago erabili 'edo' hitza, normaltasun eza orduan eta nabariagoa izango da gure hizkuntzan.

Klasiko bitxi
arrant klasiko

Joxemiel Bidador

Itoizko askazi bat edo Luis Astigarragaren amets trauskila

1821ean karrikaratu zuen Segurako erregidoreak bere idazkia.



Nahasi xamar jeitsi bide dira Urrobi ugaldako ur garden karroindatuak. Eta nahasi xamar nonbait, politikoz osa gizatalde hirotu andegarriak nahi izan duelako naski. Afoinu elkorra dario haiek negar zotinka batean helas aldarrikaturiko gezur zarpailari. Nafarren arteko gatazka zoro baten bultzatzaile baino besterik ez diren setaz jantzi putreek arin soraioki enkaratu zioten porlanezko uharka erraldoi berri horren eraikitzeari. Haskeriaturoko gaia deslaiki toteldu zaie. Azkenean, Entzutegi Nazionalak bost urtetan ederki mamituriko erabakia aditzera eman zuen ber, obrak ez zirela geldiarazi behar maiseatuz azaldu ziren, betiere zerrikrazia horren esanahia ongikiro finkatuz, badaezpada ere jende xeheak behin betikoz ikas dezan. Hasian hasi, esan ere nafar hodiaren hegoaldera buruz luzatze higuinaria ez gauzatzen hasi ez ezik, benetan egiteko aihio eskasak nabari dira zizka guztietatik ihes lodian. Bapo desenkusatzak, eta ez ahantz hortako mintzoa dutela ogibide, ezin du egiantzik sustatu, ez eta haien sinisgarritasuna eta duintasuna haikatu.

Denboran larregi gibelera hastandu gabe, honen antzikur hagi daitekeenik ediren dezakegu, izan ere, historiak eskeini adibide eta argibide ugari baita. Segura giputz herriko erregidorea genuen Luis Astigarraga Ugarte zenak Memoria sobre el proyecto y posibilidad de comunicar el mar Oceano con el Mediterraneo por medio de un canal que principiando en las inmediaciones de San Sebastian y siguiendo por Hernani, Urnieta, Andoain, Billabona, Tolosa, Alegria, Legorreta, Villafranca, Beasain, Segura, Cegama en Guipúzcoa, y por Alsua, valle del río Araquil, Artazco y otros pueblos de Navarra, llegue a unirse con el de Tudela, izenburu luzeko idazkia karrikaratu zuen 1821. urtean, Bilboko Pedro Antonio Apraizen argitaldarien moldeetan inprimaturik. Pariseko Instrukzio Elkarteiko kide honek Carlos Lemaur izeneko injineruen brigadierra zenak egin kausikuntza gogoan harturik burutu zuen bere plangintza. Azken honek, Otsaurteko hegian, eta bide berriaren egitekotan zegoela, bi itsasoak lot zitzakeen hodi baten kokagunea atzeman zuen inguru hortan, izan ere, urak banatzen diren lekuan dagoen altitudea gaintzeza zailtasunik nabarmenena baitzen, eta oraino, ezinezkotzat jotzen zen horrelakorik. Astigarragak bederlatzi kapitu-

loen barrena bere ametsa goratzen du aiko maikoetan galdu barik. Bideen garrantziaz ohartarazi nahi du irakurlea, eta Otsaurte eta San Adrian inguruko portuetako atakek izan dezaketen abantzia aldarrikatzen du elgaizturik: «Frantzia ere bide eroso ugari badaude, baina aberri industrial hori aberasten duten hodi asko ere, eta gauza bera Holandan eta Europako beste aberrietan gertatzen da, eta azkeneko mendeetan administrazioa nahiz ekonomia politikoaren arlo guztietan gaintu gaituzte».

Liburuak duen 47. orrialdean, eta Posibilidad de comunicar los dos mares izenburuko kapituloan, egin beharrekoak oro azaltzen ditu: «Es claro que hallándose este punto de Otsaurte a 300 o 400 pies más bajo que el de Aldaola, por el cual se hacen verter al Oria las aguas del Iturbegieta, se podrán tomar también las de este mismo río a una altura conveniente, de modo que conducidas por el valle en una acequia, lleguen al mismo punto de Otsaurte, desde el cual se podría ejecutar un canal, cuyas aguas en él bajasen de uno y otro lado, hacia esta parte por el valle del Oria, y de la otra por el de Urdalur. Este canal podría seguir por éste último pasando en la inmediación de Alsua, continuaría por el valle del río Araquil, y llegaría en la inmediación de Artazco, que es donde entra en el Arga. A este punto podría venir a unirse otro ramal de canal que bajaría de Eugi, en el que seguiría por la derecha del río hasta incorporarse con el anterior y continuarían unidos formando uno solo, bajarían por el río Arga hasta un punto que fuese el más cómodo para atravesarlo sobre un puente aqueducto, como así mismo el río Aragón, y entraría en el valle del Ebro para incorporarse con el canal imperial hasta Tortosa». Bestaldean, Otsaurtetik, Oria ibarran barna, Andoain herriraino luzatuko litzateke, eta handik, Leizaur eta Urumea ibaien urak aprobetxatuz, Donostiako kaian amaitu.

Etzen guti gero gure Astigarragak proposaturikoa, tamalgarria benetan egin gabe gera izana, batez ere, orain egin nahi duten zorioreko nafar hobia eta bilboko metroaren lur azpiko tunela guztiekin batera, euskal Venezia berri bat sor litekeelako, zer diot, euskal Atlantida berria gutxienez jota, euskal Gruyèrria ezpada, betiere naski, lau gobernuak oparitako guk nahi adina kalitatezko labelekin hornituta, bai ondikit!



■ Nafarroako taldekako txapelketako lehenengo mailako partida, 1995eko urriaren 7an jokatua.

Pedro Rebole (Iruñeko Orvina 'B'), 1.660 ELOkoa — Xabier San Martin (Iruñeko Arrano Elkartea), 1.765 ELOkoa.

1.e4,c6; 2.d4,d5; 3.d5,d5; 4.Zf3,Ag4; 5.Ad3,Zc6; 6.c3,e6; 7.o-o,Zf6; 8.Ag5,Ae7; 9.Af6,Af6; 10.bZ-d2,o-o; 11.De2,h6; 12.h3,Af3; 13.Zf3,Gc8.

Ikus koadroa. Orain arte, garapenerako jokaldi klasikoak egin dituzte. Une honetan, ordea, zuriek ez dute arriskua ikusiko.

14.a3,Zd4; 15.Zd4,Ad4; 16.Da4,Ab6;

17.Dg4,Df6; 18.aG-d1,fG-d8; 19.Ab1,Gc4; 20.De2,dG-c8; 21.g3,d4.

Espazioak zabalitzen dituzte horrela. Zuriek kontraerasoaren bidea hautatuko dute.

22.De4,c3; 23.Dh7 xa,Ef8; 24.Gd7,g5; 25.b3.

Barneraketa kalte gabekoa izan da. Beltzen posizioa, aldiz, bikaina da (horrexegatik uko egin diote zuriek peoia trukatzeari).

25....,Gd4; 26.Gd4,Ad4; 27.Eg2.

Nahiko ongi zuten hartuta partidaren kirtena. Baina beltzak lo geratu, eta bandera erori egin zitzaizen. Posizio-denbora joko horretan, galtzaileak, beraz. ■





JUANTXO EGAÑA



Ganadua eta baserriko produktuak izango dira nagusi igandean. A.G.

Urtero bezala, Altsasuko feriak egingen dituzte igande honetan. Aurtengo ekitaldiak, hala ere, ekarri du berrikuntzarik eta ganaduarekin batera, baserriko produktuen erakusketa izanen da eguneko protagonista. Herriko karraketan barrena, ezti, txokolate, gazta, pasta, fruitu era barazki saltzaileak izanen dira, besteak beste. Produktu hauek ezagutarazi nahi dituzte erakusketa honen bidez antolatzaileek.

Altsasuko feriak igandean

AITZIBER ETXAIZ / ALTSASU

Igande honetan, urtero bezala, Altsasuko feriak egingen dira. Aurtun, hala ere, bada berrikuntzarik, baserriko produktuen erakusketa prestatu baitute antolatzaileek.

Aurtengo feriarekin egitaraua joan den astean aurkeztu zuten prentsaurrekoan. Han izan ziren xehetasun guztiak emateko prest, Susana Mendinueta ferietako nekazaritzako elikagaien koordinatzailea eta Cederna-Garalurreko arduraduna, Jose Maria Ilariz Ordiziako ordezkaria eta ferietako antolatzailea, Esther Irisarri Altsasuko Kultur zinegotzia, Pello Dospital eta Jean Pierre Izeaga Ezpeletako Udaleko ordezkariak eta ferietako antolatzaileak eta Altsasuko alkatea den Jose Angel Agirrebengoa. Izan ere, Altsasuko, Ezpeletako eta Ordiziako udalek bat egiten dute nekazaritzako elikagai, kalitate eta ekoizleen arteko trukeak indartzeko. Hori dela eta, herri bakoitzak, txandaka, elikagai hauek bultzatzeko feria antolatuko du. Lehenengoa, Altsasuko izanen da, igande honetan. Ondoren, Ezpeletak hartuko du txanda eta apirilaren 8an antolatuko du azoka. Azkenik, Ordizian egingen dute, baina

oraindik ez dute erabaki noiz.

Jose Angel Agirrebengoa Altsasuko alkatea, hain zuzen ere, produktu hauek baserrietan eta Euskal Herriko ustiatketetan landuak daudela azpimarratu du eta bere ustez, Euskal Herriko nekazaritzako produktuek izan duten garapena ere kontuan har-

tzekoa da. Baserriko produktu hauek guztiak, beraz, igandean Altsasun egingen den ferian ikusi ahal izanen dira. Ezpeletatik 30 ekoizle inguru hurbilduko dira bertara, Nafarroatik 22 eta Bizkaitik, Gipuzkoatik eta Arabatik, berriz, 45 inguru. Produktuei dagokienez, bestalde, gazta, ez-

tia, pateak, hestekiak, likorrak, barazkiak, txokolatea, pastak eta beste hainbeste ikusi ahal izanen dira Altsasuko kaleetan zehar. Produktu ekologikoak ere bertan izanen dira. Fruta eta barazkiei, hala ere, garrantzi berezia eman nahi izan diete antolatzaileek eta ehun metroko tartea egin diete

jendeak gustora ikusi eta erosditzan. Interesa duenak, Zubeztia plazan aurkituko dituzte fruitu eta barazki hauek guztiak. Foru plazan, berriz, gazta (Idiazabal sor-markakoak) eta Sakanako txistorra dastatu ahal izanen dira eta ferialekuan, berriz, abereak eta makinak izanen dira ikusgai. Gainontzeko guztia, San Juan kalean, Intxostian, San Pedro auzoan eta Iortia kalean egonen da. Halaber, merkatu bereziak, etxeko mozkinak eta herrikoiak ezagutzeko aukera ere izanen da Altsasuko ferian, baita Ordizia eta Ezpeletan egingen direnetan ere.

Altsasukoaren ondoren, beraz, Ezpeletak hartuko du feriak antolatzeko ardura. Bertan, hain zuzen ere, asteazkeneko dago merkatua eta uda partean, gainera, larunbatetan ere egiten da. Halaber, urtean behin —apirilaren 8an, hain zuzen ere—, feriak egiten dituzte bertako biztanleek. Ferietan etxeko produktuak eta abereak izaten dira eguneko izarrak, Hori dela eta, ez da harrizkoa Altsasuko ferietara Iparraldetik 30 ekoizle inguru hurbilduko direla jakitea. Horrela, mugaz bestaldeko ekoizleekin eta erosleekin harreman estuak sortu nahi dituzte Ezpeletakoek.

Lankidetzaren Fondoaren laguntza

E. E. / IRUNEA

■ Urtero bezala, aurtun ere, ganadu feria egingo dute igande honetan Altsasun. Ferien egitarauaren barruan, ordea, berrikuntza nabarmena izanen da aurtun, lehen aldiz eta Ezpeleta, Altsasu eta Ordiziako udalen ekimenez, baserriko produktuen erakusketa egingo baitute bertan. Susana Mendinueta ferietako nekazaritzako elikagaien koordinatzaile eta Cederna-Garalurreko arduradunak erakusketa honen xehetasunak eta nondik norakoak azaldu dizkigu.

«Baserriko produktuak jakinarazi eta merkatuan tartea bat

izatea da erakusketa honen helburu nagusia», azpimarratu du Susana Mendinueta. Horretarako, Ezpeleta, Altsasu eta Ordiziako udalek bat egin eta proiektua EAE, Akitania eta Nafarroaren arteko Lankidetzaren Fondoan aurkeztu zuten, laguntza jasotzeko asmoz. Eta hala izan da. Izan ere, Fondo honek feria bakoitzaren aurrekontuaren erdia ordainduko du. Altsasuko feriarik dago-kionez, hiru milioi l'erdiko (140.000 libera inguru) aurrekontua izan du eta erdia, erran bezala, EAE, Akitania eta Nafarroaren arteko Lankidetzaren Fondoak ordainduko du. Gainontzekoa Altsasuko Udalak ordaindu-

ko du babesleen laguntzaz.

Susana Mendinueta ekoizleekin harremanetan jartzeko Nafarroako Artisauen Elkarteak emandako laguntza azpimarratu du. Izan ere, ferian parte hartuko duten Nafarroako artisau gehienak elkarte honetako kide dira. Produktu ekologikoak, berriz, Bio Lur elkarteak erakustiko dituzte Altsasun. Mendinueta azaldu duenez, Bestalde, badira ferian izango ez diren produktugileak ere: «Gure asmoa, zainzuriak edo pikiloko piperrak ekoizten dituzten nekazariak ere ferian izatea zen, baina azkenean, ez dakit zehazki zergatik, ez dira etorriko».

«Ruandak erabat tristetu nau»

EDURNE ELIZONDO / IRUNEA

Javier Bauluz argazkilaria-
ren erakusketa zabaldu zen
joan den asteartean Nafarroa-
ko Medikuen Elkartearen, Mu-
garik Gabeko Medikuak el-
kartearen eskutik. 'Ruanda:
amor en tiempos de cólera' da
aipatu erakusketaren izena eta
osotara, 50 argazkik osatzen
dute. Horien artean, aurtengo
Pulitzer saria irabazi duten hi-
ru argazki daude. Javier Bau-

gatazken artean. Bosnian, adi-
bidez, jendeak korrika egin
behar du teilatueta dauden
tiratzaileengandik ihes egite-
ko. Halakoak ikusita amorru
izugarria sentitu dut. Ruandan,
berriz, ez dago tirorik, jendea
ez dabil alde batetik bestera
korrika, jendea, besterik gabe,
hil egiten da. Milaka lagun di-
tuzu aurrean eta egiten duten
bakarra hiltzea da. Horrek se-
kulako tristura eta depresioa
eragin dit.

bait egin dezan. Sariari esker,
ahotsa jarri diet nire argazkiei,
orain arte irudien bidez erran
dudana, mikrofono baten a-
rrean erran baitezaket orain.
Hala ere, pertsonalki, saria
Palestinako Intifadari buruzko
argazkiekin irabazi izan banu
gusturago sentituko nintzate-
ke. Ruandako argazkiak ez di-
ra nire lanaren esanguratsue-
nak, ez daude lehendik eta he-
mendik aurrera ere egingo du-
dan lanaren bidean.

nire lana eta gustura egiten dut.
EGUNKARIA.— Agentzientzat
egin duzu lan beti. Zergatik?

BAULUZ.— Askatasun osoz
lan egiteko aukera daukadala-
ko horrela. Nik erabakitzen
dut nora joan eta ez naiz inoiz
nahi ez dudana leku batera joa-
ten. Izan ere, Ruandako argaz-
ki hauek guztiak ezingo nituz-
ke egin bertara behartuta joan
izan banintz. Egunkari baten-
tzat lan eginez egun ez dudana
segurtasuna eskuratuko nuke
agian, baina askatasuna galdu
gingo nuke, zalantzarik gabe,
eta hori ez dut inola ere nahi.
Egin izan ditudan bidaia gehi-
enak nik neuk ordaindu dit-
ut, baina gustora nago.

EGUNKARIA.— Erakusketa
honen izenburu bereko
—'Ruanda: amor en tiempos
de cólera'— liburua argitaratu
duzu. Aurretik ere 'Sombras
en combate' idatzi zenuen.

BAULUZ.— Bai, baina oso ez-
berdinak dira. Pulitzer saria
Ruandako argazkiekin irabazi
dudanez, mundu guztiak hori
nire lan bakarra dela uste du,
Ruandako argazkilaria naizela
uste du, eta ez da horrela. Urte
asko daramatzat lanean eta
Ruandan ezezik, Maroko,
Bosnia, Txile, Peru, Guatema-
la, Nikaragua, El Salvador,
Palestina eta beste hainbat le-
kutan izan naiz. 'Sombras en
combate' liburua, hain zuzen
ere, injustizia eta krudeltasu-
naren aurka borrokatzen diren
itzal anonimo guztien omenez
egin nuen. Bertan, Txile, Pa-
lestina, Sahara eta beste hain-
bat herrialdetako argazkiak ja-
so nituen.

EGUNKARIA.— Ruandara
itzultzeko asmorik baduzu?

BAULUZ.— Oraingo ez, be-
hintzat. Ziurrenik Bosnia al-
dera joango naiz oraingoan.
Izan ere, han gertatzen ari dena
Ruandakoa baino zailagoa da
ulertzen eta komunikabideek
ere ez dute ahalegin handirik
egiten. Gatazka ahalik eta gehi-
en sinplifikatu dute eta az-
kenean egia ez den irudia
agertu dute bertan gertatzen ari
denari buruz. Erljio arazoa
baino ez dela sinestrazi nahi
digute.

Javier Bauluz

ARGAZKILARIA



SOSLATA

Mundu osoan zehar

Londresko Hyde Parken egin
zituen lehen argazkiak Javier
Bauluzek. Londrestik Marokora
joan zen eta Asturiasera itzul-
tzean, 1985ean meategietako is-
tiluak jaso zituen bere argazki
makinarekin bidez. Mundu osoko
hainbat herrialdetan ibili da Ja-
vier Bauluz beti freelance mo-
dura: Nikaragua, El Salvador,
Palestina eta abarretan, eta aldiz-
kari eta egunkari garrantzitsue-
netan argitaratu ditu bere argaz-
kiak, besteak beste, 'New York
Times', 'Washington Post', 'Li-
beration', 'Der Spiegel' eta
'Newsweek-en'. 1986, 1987 eta
1988 urteetan 'Fotopress' era-
kusketan agertzeko aukeratu zi-
tuzten bere argazkiak eta 1989an,
'Palestinako Intifada' lanarekin
Espainiako lehen Fotopress saria
eskuratu zuen. Hurrengo urtean
bigarren geratu zen El Salvado-
rren ateratako 'Gerraren beste
aurpegiak' argazkiarekin.



Aurtengo Pulitzer saria irabazi du Javier Bauluzek.

JOXE LACALLE

luzek Ruandan egindako lana-
gatik jaso du aipatu saria As-
sociated Press agentziako bes-
te hiru argazkilarirekin batera.
Bauluzen sei argazkik jaso zu-
ten, zehazki, sari hau. Javier
Bauluz erakusketaren aurkez-
penean egon zen eta bertan,
Ruandan bizi izandakoaz eta
bere lanbidez mintzatu zen
oro har. Bere erakusketaren
bidez, Ruandako errefuxia-
tuen eremuetan ikusitakoa is-
ladatu nahi izan du argazkila-
riak, bertakoenganako elkar-
tasuna pizteko asmoz.

EGUNKARIA.— Mundu osoko
gatazka ezagutu dituzu. Zerk
hunkitu zaitu gehien Ruand-
an?

JAVIER BAULUZ.— Ezberdin-
tasun handia dago Ruandako
eta beste hainbat herrialdetako

«Ruandan bizi izandakoa isladatu nahi dut
nire argazkien bidez, jendeak bertan
gertatzen dena jakin dezan».

EGUNKARIA.— Bertan Asso-
ciated Press agentziarentzat
egindako argazkiekin, ordea,
Pulitzer saria irabazi duzu zure
lan taldeko beste hiru argazki-
larirekin batera.

BAULUZ.— Hala da, baina nire
ustez, egin ditut horiek baino
argazki hobeak eta Ruandari
buruz ere, publikatu ez diren
argazki asko gehiago guztatu
zaizkit saria irabazi duten
seiak baino. Argazki horiekin
bertan gertatzen ari dena jakin-
narazi nahi dut, jendeak zer-

EGUNKARIA.— Zerk eraman
zintuen argazkigintzaren
mundura eta zergatik jarrai-
tzen duzu bertan?

BAULUZ.— Egia erran, kasua-
litatez hasi nintzen argazkiak
ateratzen. Londresko Hyde
Parken nengoen lagun batek
utzitako kamerarekin eta or-
duan Polizia agertu zen. Ar-
gazkiak ateratzen hasi nintzen
eta errebelatuta ikusi nitue-
nean, argi izan nuen argazki-
lari izan nahi nuela. Gaur egun
berdin jarraitzen dut, hau da

P A N E LUCRANDO

Matisse
Torre - 1944




ZER EGIN DU TXILLIDAK?

- Zure aukera.
- Kopiatu du. Kupidagabe.
- Inspiratu da kontzienteki, omenaldia.
- Kasualitate hutsa da.
- Inkontzienteki egin du lana. Memoria.
- Jatorria ezkotatzen du. Plagioa.
- Nik gizakiarengan sinisten dut.
- Beno.. Nik gizakiarengan sinistu nahi nuke.. baina..
- Ez dakit. Ez dut hontaz eritziarik ere.



Henri Matisse. Selfportrait.
(Kalkatua) 1945.

TXILLIDA -1995-



Matisse, Torre, 1944. Bauluz, Torre, 1995. -Ikonismo, 02/10/1995, P. 12